

203. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

Sustapen ekonomikoari
eta etxebizitza politikei
bultzada



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47



Ale honetan zer?

Etxebizitzaren alokairua	3
Dirulaguntza lerro berria	6
Sustapen ekonomikorako laguntza	8
Ekonomiaren bilakaerari buruzko datuak	14

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Etxebizitzaren alokairurako dirulaguntzak eta bitartekaritza programa

Etxebizitza programa honek bi alderditan eragingo du: alde batetik, etxebizitzaren alokairurako laguntzak jasotzen ditu, gazteen emantzipazioa errazteko; eta bestetik, etxe hutsak mobilizatu eta alokairura ateratzeko bitartekaritza lana egingo da.

Azpeitiko Udalak Etxebizitza Programa sortu du, 2030 Plan Estrategikoaren baitako Etxebizitza planean jaso ziren konpromisoerik erantzuteko; alegia, herritarren etxebizitza beharrei erantzutea, eta horretara bideratuta dago aurkeztu berri den programa. Izan ere, etxebizitzaren behar sozial bat dago herrian, eta etxe hutsak izateak kostu soziala dakar. Horregatik, Etxebizitza Planean jaso zenari jarraikiz, alokairua sustatzeko eta errazteko neurri berriak landu ditu Udalak, eta etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza programa aurkeztu du. Etxebizitza programa honek bi alderditan eragingo du: alde batetik, etxebizitzaren alokairurako laguntzak jasotzen ditu, gazteen emantzipazioa errazteko; eta bestetik, etxe hutsak mobilizatu eta alokairura ateratzeko bitartekaritza lana egingo da, etxebizitza bulegoaren bidez.

Gazteek alokairu duin batean bizitzeko aukera bermatu nahi du Udalak.



BITARTEKARITZA PROGRAMA

Bitartekaritza programa berritzaile honen helburua da hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzea eta horrela, etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzetan aurreikusitako kolektiboari eskuragarri jartzea. Programa hori gauzatzeko, lehenik eta behin etxebizitza hutsen jabeekin harremanetan jarriko da Udala eta etxebizitza merkaturatzeko dituzten aukeren berri emango die, Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programa barne. Bitartekaritza programa honetan parte hartu nahi dutenekin erregistro bat jasoko da, Etxebizitza Bulegoan. Programan izena emateko aukera izango dute, bestalde, herrian etxe bat alokatzeko premia duten herritarrek ere. Hortaz, osatuko diren bi erregistroen artean bitartekaritza lana egingo da, eta bi aldeak, etxebizitzaren jabeak eta eskatzaileak, harremanetan jartzeko bidea erraztuko da.

Harremana errazteaz gain, alokairu-kontratuaren eredu bat ere eskura jarriko zaie, adostasun batera iritsiz gero, kontratua formalizatzeko. Gainera, udalak alokairuetarako eskaintzen dituen dirulaguntzei buruzko informazioa ere emango zaie, eta baldintzak betetzen direnean, bai eta eskaerak bideratu ere.

Programa honetan parte hartu nahi dutenek Udalaren webgunean sortu berri den etxebizitza atalaren bidez edo Etxebizitza Bulegoan bertan eman dezakete izena.



**Etxebizitzaren
alokairurako laguntza,
batez ere, 18 eta 35
urte bitarteko azpeitiar
gazteei zuzendurik dago**

ETXEBIZITZEN ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK

Azpeitiko Udala jakitun da gazteentzat arazo garrantzitsuenetako bat etxebizitzarena dela. Gazteen artean nagusi den prekaritatea ikusita, gazteek gurasoen etxetik irteteko aukera izan eta alokairu duin batean bizitzeko aukera bermatu nahi du Udalak dirulaguntza hauen bidez. Dirulaguntza ez dago gazteei soilik zuzendua, baina haiek bereziki kontuan hartuta egin dira.

Udalaren iritziz, eraginkortasun handiko dirulaguntzak dira hauek; izan ere, laguntza hauen bidez, gazteek 250 €-ko alokairuaren truke etxebizitza bat izan dezakete. Eta, bistan da, etxebizitza bat izateko eskubidea bideragarria eta eskuragarria izatea dakar horrek.

18 eta 35 urte bitarteko gazteez gain, ordea, bestelako kolektibo batzuk ere dirulaguntza hauen onuradunak izan daitezke: banandu edo dibortziatuak, alargunak, 70 urtetik gorako pertsonak eta mugikortasun urria duten pertsonak. Dirulaguntza hauek eskatu ahal izateko, honako betekizun hauek bete behar dira: Azpeitian erroldatuta egon behar da, gutxienez, azken 3 urteetan jarraian edo, edozein unetan, 5 urtez jarraian Azpeitian bizi izana. Gainera, dirulaguntza hauek emateko, etxebizitzan biziko diren pertsonen diru-sarrerak hartuko dira kontuan; hortaz, eskatzaile bakarraren kasuan, gehienez 28.000 €ko diru-sarrerak izan beharko ditu, eta bizikidetzaren unitatea bada, gehienez 35.000 €.

Eskaera bakoitzaren gehieneko laguntza, hilean 350 €-koa izango da, 400 €-koa etxebizitza Alde Zaharrean badago, eta alokairuaren prezioa, gehienez, 650 €-koa izango da.

ESKAERAK EGITEKO EPEA ETA ERA

2022ko urriaren 15era arte egin ahal izango da dirulaguntza jasotzeko eskaera, eta eskaerak udal webgunearen bidez (tramiteak online), Herritarren Arreta Zerbitzuan eta Etxebizitza Bulegoan aurkez daitezke.

Dirulaguntza lerro berria aurkeztu du Udalak etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko, efizientzia energetikoa lortzeko eta energia berriztagarriak ezartzeko

Dirulaguntza lerro berri horretara 300.000€ bideratu ditu Udalak, bi helburu nagusirekin; alde batetik, etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzea, eta, bestetik, etxebizitzaren efizientzia energetikoan eragin eta energia berriztagarrien instalazioak sustatzea.

Izan ere, Udalak joan den otsailean onartutako Etxebizitza Planean jasotako ardatzetan lanean jarraitzen du eta ardatz horietako bat da, hain zuzen, lerro berri honekin diruz lagundu nahi dena.

Dirulaguntzak hartzen dituen hiru alderdi bakoitzeko deialdi bana argitaratu du Udalak: irisgarritasuna, efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrien ezarpena, horien bidez, herritarren bizi kalitatea hobetzeko xedez. Argi baitago herritarren bizi kalitatea estu lotuta dagoela etxebizitzarekin, eta Udalak argi du etxebizitza parkea birgaitzea herritarren eguneroko bizimodua hobetzeko edo errazteko modua dela.

LAGUNTZEN XEHETASUNAK

Aurkeztu berri den dirulaguntza etxebizitza jabego edo komunitate zein norbanakoek eskatu ahal izango dituzte; hortaz, norbere etxean zein etxepe osoan egindako hobekuntza edo lanak, etxebizitza eraikinetako norbanakoen etxebizitzetan egindakoak, nahiz bizitegi indibidualetan egindakoak lagunduko dira.

Dirulaguntza hiru alderdietako bakoitzak zehaztapen jakin batzuk izango ditu; hala nola, **irisgarritasunari dagokionez**, jabego erkidegoen kasuan honako lan hauek lagunduko dira: igogailu berriak jartzeko edo daudenak hobetzeko eta irisgarritasun hobetzeko egindako inbertsioak eta obrak, zabalerak, norabideak eta abar aldatzeko edo beharrezkoak diren mekanismo eta elementuak instalatzeko egindakoak. Norbanakoen kasuan berriz, etxebizitzaren barruko irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko egindako aldaketak eta berrikuntzak lagunduko dira: banaketa-hormak aldatzeko obrak, espazioetarako irisgarritasuna hobetzeko, eta bainugela barrualdeak hobetzeko lanak: bainuontziak dutxekin, pasoko ateekin, komunen

egokitzapenekin eta abarrekin ordezkatea eta segurtasun elementu finkoak instalatzea: bainuontziko eserlekuak, txorrotzak, holtzak barrak eta euskarriak. Bai eta oztopo arkitektonikoak kentzen laguntzen duen beste edozein obra.

Energia efizientzia hobetzeko dirulaguntzen kasuan, jabego erkidegoetan eraikinaren inguratzaile termikoa hobetzeko lanak lagunduko dira, eta norbanakoen kasuan, isolamendua hobetzeko eta galdara edo leihoak aldatzeko laguntzak emango dira.

Energia berriztagarrien kasuan ere, eguzki plaka, aerotermia edo bestelako teknika berriztagarrien ezarpena lagunduko da diruz, bai jabego erkidegoei bai norbanakoei. Autokontsumorako energia-iturri berriztagarriak instalatzeko obrak egiteko ere eska daiteke laguntza.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako lanak sartuko dira deialdi honetan, eta laguntzak eskatzeko azken eguna 2022ko urriaren 31 izango da.



ESKAERAK EGITEKO BALDINTZAK

Aurretik aipatutako ildo bakoitzerako laguntzetarako baldintzak berdinak izango dira kasu guztietan.

Norbanakoen kasuan, onuradunen bizikidetzaren unitatearen urteko diru sarreraren gehienezko kopurua ezingo da 39.000 eurotik gorako izan, eta gastuaren % 30 lagunduko da, 3.000 euroko mugarekin. Jabego erkidegoetan edo etxepeko komunitatetan, aurrekontuaren % 40koa izango da gehienezko dirulaguntza, 8.000 euroko mugarekin. Etxepeetako obren kasuan, norbanakoek bereiz eska dezakete titular bakoitzaren partaidetza kuotari dagokion % 30, 3.000 euroko mugarekin.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK ETA MODUA

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako lanak sartuko dira deialdi honetan, eta laguntzak eskatzeko azken eguna 2022ko urriaren 31 izango da; hortik aurrera egindako eskaera, datorren urteko deialdian sartuko dira. Informazio gehiago jasotzeko edo eskaerak aurkezteko, Enparan kalean dagoen Etxebizitza Bulegora jo behar da, hori baita etxebizitzaren inguruko gaietarako leihatila edo bulego bakarra.



Herriaren sustapen ekonomikorako dirulaguntza programa

DIRULAGUNTZAK INDARTU ETA HANDITU DITU UDALAK EHUN EKONOMIKOA INDARTZEKO

Ekonomia sustatzeko laguntzak dira Azpeitiko Udalaren babes sozial eta ekonomikorako 11 neurrien ardatz nagusiak. Herritarren beharrei erantzutea lehenetasuna izanik, unean unean bizi dugun egoera aztertu eta horren arabera neurriak hartzen eta egokitzen ditu Udalak. Hala, gaur egun bizi dugun egoera kontuan hartu eta egoerak zuzenean eragin dien sektoreak identifikatu ditu Udalak, eta haienzako laguntzak zehaztu. Herriaren ekonomia sustatzea helburu nagusietako bat da beraz, enplegua sortzea bultzatuz eta, aldi berean, udalerriko enpresen lehiakortasuna indartuz, besteak beste. Eraldaketa hori bultzatzeko eta gure tokiko ekonomiaren etorkizuneko erronkei aurre egiteko, hainbat dirulaguntza lerro ireki

ditu Udalak azken urteotan, industria sektorean nahiz gainerako sektoreetan enpresak sortzea eta jarduera ekonomikoen sustapena laguntzea eta genero-berdintasuna eta ingurumen-iraunkortasuna sustatzea eta hobetzea helburu dutenak. Horretarako 550.000€ko dirulaguntza lerroa du abian.

Dirulaguntza horiek emaitza ona izan dute, eta horri esker, beste fase batzuk urratzeko aukera izan du Azpeitiko Udalak herriaren lehiakortasuna garatzeko, eta berrikuntzan oinarritutako beste fase bati ekiteko, enpresa-lehiakortasunaren iturri gisa eskaintzen diren aukera ugariarekin, kalitatezko enplegua sortuz, baita produkzio-jarduerak finkatuz ere, 4.0 Industria, kasu, eta azkenik, energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasuna enpresetan eta jardueretan sartuta.

Hortaz, dirulaguntza programa horrekin jarraitu nahi da, herrian enplegua sortzeko eta dagoenari eusteko helburua duten enpresa berriak sortzeko eta daudenak sendotzeko. Eta aurren, bereziki, energia berrietara egokitzeko beharra azpimarratu nahi da, mendekotasun energetikoa murrizteko, ekonomia deskarbonizatzeko eta, ondorioz, airearen kalitatea hobetuz, ingurumena eta osasuna babesteko. Horrez gain, elektrizitatearen prezioa merkatzea eta faktura elektrikoa murriztea ere baditu helburu programa honek.

Horren ildoan, askotariko neurriak onartu eta hartu ditu Udalak egungo energia-krisiaren ondorioak arintzeko. Sektoreak bizi duen krisia larriagotu egiten du sektore batzuetako profesional autonomoek (garraiolariak) erregaien prezioen igoeraren ondorioz beren gain hartutako gastuak handitzeak eta milaka enpresa porrotaren zorian jartzen ditu. Horregatik, aurtengo dirulaguntzen programa honetan berriazko laguntza batzuk sartu dira krisi energetikoak gogor erasandako sektoreetan.

Aipatutako dirulaguntzen edukia zehazteko, honako alderdi hauek hartu dira kontuan:

- Azpeitiko lan-merkatuko datuak.
- Eskualdeko egoera ekonomikoa eta industria ehunera pasatutako galdeketa onorioak.
- Azpeitiko enpresa kopurua eta tamainaren arabera 2014-2018an izan diren eskaerak.

Jarduera ekonomikoen sustapena laguntzea eta genero-berdintasuna eta ingurumen-iraunkortasuna sustatzea eta hobetzea da helburua

DIRULAGUNTZEN OINARRIAK

Dirulaguntzen deialdiari erantzuteko, 547.000 euroko zenbatekoa bideratuko du Udalak, honako lau laguntza lerrotan zehaztuta.

1. Zerbitzu sektorean eta/edo lehenengo sektorean jarduerak indartzera bideratutako dirulaguntzak.
2. Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak, eraikuntza sektoreko proiektuak eta salgaien errepideko garraiolariak sustatzen laguntzeko dirulaguntzak.
3. Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan enpleguaren sorrera bultzatzeko dirulaguntzak.
4. I. sektorean, zerbitzuen sektorean, ostalaritzan nahiz industrian enplegua sustatzeko dirulaguntzak.

Dirulaguntza hauen onuradunak oinarrietan zehaztutakoak eta baldintzak betetzen dituztenak izango dira, eta interesa dutenek, Udalaren sarrera erregistroan, Udalaren webgunean eta Azpeitia Berritzen, SAren bulegoetan eskuratu ahal izango dute normalizatutako inprimakia eta horixe betetakoan, aurrez aurre aurkeztu ahal izango dute Azpeitiko Udaleko erregistro orokorrean astelehene ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, eta ostegunetan 19:00ak arte, edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein lekutan. Eskatzaileak eskabidea posta-bulego batean aurkeztea erabakitzen badu, gutun-azal irekian aurkeztuko du, posta-zerbitzuko langileek data eta zigilua jar diezaioten eskabideari.

Bestalde, **bide elektronikoa** ere erabili ahal izango da eskaerak aurkezteko udalaren webgunearen bidez: www.azpeitia.eus

Laguntzak eskatzeko epea, **2022ko urriaren 31ra arte** egongo da zabalik.



ENPRESA TXIKI ETA GARRAIOLARIANTZAT LAGUNTZAK, BERRIKUNTZA GISA

Egungo egoera desegonkorraren aurrean, beraz, dirulaguntza handitu eta hainbat kontzeptu berri atxiki dituzte; hala nola, gremio txikientzako eta garraiolarientzako laguntza berriak eta Alde Zaharreko lokal hutsetan jarduera ezartzen dutenei alokairua ordaintzeko laguntza. Horrez gain, herriko enpresek azpeitiar langabetuak kontratatzea diruz laguntzen jarraituko du Udalak, eta bereziki, 45 urtetik gorakoen eta emakumeen kontratazioak.

Ohiko lerroak jarri badira ere abian, hainbat berrikuntza jaso dira dirulaguntza hauetan, helburua sektore desberdinetako beharrei erantzutea jarrita. Hala, inbertsionarako, trantsizio energetikorako inbertsio, azterketa edo efizientzia hobetzekoak egiteko, berdintasun planak egiteko edo digitalizatorako laguntzak jaso dira. Proiektu berritzaileak sustatu digitalizatorako pausoak erraztu, Ticket Bai sistemaren euskarazko ezarpenean bereziki lagundu edo eskualdatzeak edo negozio berri lehiakorrek sortzeko.

Orain arte industria enpresei bideratutako laguntzez gain, aurtengoan eraikuntzako enpresa txikientzako laguntzak ere jarri dira kontzeptu berdinak laguntzeko. Horretaz gain, erregaien prezioen igoerak garraiolarien ekonomian izan duen eraginaren jakitun, sektore horrentzako laguntza gehigarri bat ere jarri dute. Urtarriletik ekainera 5.000€tik gorako erregaiaren kontsumoa izan duten garraiolariei 1.500€ ko dirulaguntza emango zaie.



LAGUNTZEN NONDIK NORAKOAK



01. ZERBITZU SEKTOREKO ETA LEHEN SEKTOREKO JARDUERAK INDARTZEKO DIRULAGUNTZAK.

97.000 €

Helburua da sektore horietako jarduerak indartzea eta berriak sortzea. Honako hauek dira eremu honetan diruz lagunduko diren jarduerak:

- a.** Zerbitzuen sektorean eta lehen sektorean lehiakortasuna sustatzeko ekintzak edo jarduerak egitea. Diruz lagunduko dira, bertako produktuen kontsumoa; digitalizazioa eta Ticket Bai sistemaren aholkularitza eta ezarpena; euskaraz ezartzen den kasuetan, gainera dirulaguntza gehigarria jasoko du.
- b.** Lehen sektorea ezartzea, eraberritzea edo finkatzea. Nekazaritza ustiapenen lehiakortasuna eta ingurumeneko jasangarritasuna hobetzeko jarduerak sustatu, baita nekazaritza-ustiapenetara nekazari gazteak bultzatzeko jarduerak ere.
- c.** Zerbitzuen sektoreko eta lehen sektoreko jarduerak abiatzea, merkatu azterketak eta eskualdatzeak egitea.
- d.** Zerbitzuen sektoreko eta lehen sektoreko jarduera berrien lokalen alokairua.
- e.** Alde Zaharreko eremuan hutsik dagoen lokala martxan jartzeagatik lokalaren alokairua diruz lagunduko da, lokala martxan jarri eta bost urtez.
- f.** Energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoaren arloko laguntzak (diagnostiko eta auditoriak egitea, kontsumoa jaisteko eta energia berriztagarriak ezartzeko egindako inbertsioak).



02. INDUSTRIA PROIEKTU ESTRATEGIKO EDO BERRITZAILEAK, ERAIKUNTZA SEKTOREKO GREMIOEI ETA GARRAIOLARIEI BIDERATUTAKO LAGUNTZAK.

310.000 €

Azpeitian industria-proiektu estrategikoak eta berritzaileak, eraikuntza sektoreko enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna bultzatzeko ekintzak eta garraiolarie sektoreko autonomoak bultzatu nahi dira lerro honen bidez. Honako hauek dira eremu honetan diruz lagunduko diren jarduerak:

- a. 49 langile edo gutxiagoko enpresetarako industria proiektu estrategikoak, berrikuntzakoak eta digitalizazioa exekutatzeko eta garatzea. Proiektu berritzaileak eta estrategikoak, enplegua sortuko dutenak; digitalizazioa, ikerketa, berrikuntza edota garapenekoak; eskualdeko ekonomia-ehuna dibertsifikatzeko balio dutenak.
- b. Instalazioak egokitzeko eta erosteko edota ekipamendu tekniko eta teknologikoak ezartzeko inbertsioak egitea, 49 langile edo gutxiagoko enpresentzat.
- c. Industria jarduera berriak modu finkoan Azpeitiko udalerrian kokatzea, gutxienez 20 langileko jardueratan.
- d. Genero berdintasuna bultzatuko duten neurriak ezartzea, berdintasun-planak eginda eta instalazioak egokitzeko inbertsio zehatzak bideratuta.
- e. Energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoaren arloko inbertsioak egitea: - Diagnostikoak eta auditoriak egitea, 49 langile edo gutxiago enpresetan
- f. Eraikuntza sektoreko enpresa txiki eta ertainen (elektrikariak, arotzak, iturginak, margolariak...) lehiakortasuna bultzatzeko laguntzak: Sektorearen digitalizazioa bultzatzeko; instalazioak egokitzeko eta erosteko inbertsioak, baita ekipamenduetan egindako inbertsioak (makineria, tresneria, lokalen handitzea edo egokitzapenak ere). Energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoaren arloko inbertsioak.
- g. Garraiolarie sektoreko autonomoak eta 20 langiletik beherako enpresei bideratutako laguntza: Azken hilabeteetan gasolinaren prezioak izan duen igoera handia dela eta, urtarrietik ekainera bitartean 5.000 eurotik gorako erregaiaren kontsumoa izan duten garraiolariei 1.500 €-ko dirulaguntza emango zaie.



03.
EKINTZAILETASUNA SUSTATZEA, BEREZIKI GIZARTE EKONOMIAN ETA IZAERA ESTRATEGIKOA EDO BERRITZAILEA DUTEN JARDUERETAN.

65.000 €

Bereziki, honako sektore hauetan enplegua sortzeko helburua dute: gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan. Autonomo eta ekintzaile berriek 3.000 euroko dirulaguntza jasoko dute. Dirulaguntza honetarako, honako hauek soilik hartuko dira ontzat: lan elkartuko kooperatibak, lurraren ustiapen komunitarioko kooperatibak eta lan sozietateak. Ezaugarri horiek dituzten enpresek 5.000 euroko dirulaguntza jasoko dute. Baldintzak: Enpresa berria sortu duen edo sortuko duen pertsona langabezian egotea eta Azpeitian erroldatua egotea, enpresa eratzekoan.

Sustapen ekonomikorako laguntza

04.
LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONEN KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK.

75.000 €

Zerbitzuen sektorean, merkataritzan zein ostalaritzan, lehen sektorean eta industriaren sektorean eginiko kontratazioak lagunduko dira.

- Langabezian dauden pertsonen kontratazioa, aldi baterako kontratuak eta mugagabeak, lanaldi osokoak zein lanaldiaren zati batekoak. Kontratu mugagabeak dirulaguntza kopuru handiagoa izango du.
- Aldi baterako kontratua amaitu ondorengo kontratazioa, kontratu mugagabeak, lanaldi osokoak zein lanaldiaren zati batekoak.
- Formakuntza eta praktiketako kontratuak % 25 gutxiago lagunduko dira.
- 45 urtetik gorako pertsona kontratatzen bada, kontratazioak % 25 gehiagoko laguntza izango du.
- Industria sektorean emakumea kontratatzen bada, kontratazioak % 25 gehiagoko laguntza izango du.



Azpeitia eta eskualdearen bilakaera sozioekonomikoa



2008an krisialdian sartu ondoren, ordutik hona aldaketa sakonak gertatu dira bai demografian bai ehun ekonomiko osoan, eta horiek guztiek bilakaera jakin bat eragin dute Azpeitian, eskualdean eta EAE osoan, jakina, baina zeinek bere ezaugarriak ditu. Lehenengo urteetan, 2008 eta 2013 artean, gutxi gorabehera, ez zen hazkunderik izan, jaitsiera baizik, eta urte horretatik aurrera hasi zen, zenbait sektoretan bereziki, hazkundera nabaritzen. Hala ere, gaur egun oraindik, inon ez da lortu 2008ko datuetara iristea. 2008tik hona hainbat aldagaik izandako bilakaerak lagunduko digu ulertzen bai eskualdearen bai Azpeitiaren azken urteotan ekonomia bera nola bilakatu den.

DEMOGRAFIA

Urola Erdiko biztanleria % 6,22 hazi da 2008 eta 2020 urteen artean, eta 32.008 biztanle ditu eskualdeak 2020ko azken zenbaketan. Horietatik, % 95,3 Azkoitian, Azpeitian eta Zestoan. Hazkundera, hein batean, atzerriko biztanleriaren hazkundera berak eragina da; izan ere, 2008an baino 1.253 atzerritar gehiago bizi da eskualdean 2020a. Adin piramidean, berriz, irauli egin da eta biztanleriaren gehiengoak 35 eta 60 urte bitarte horretan dago, eta 10 eta 35 urte bitartean, piramidean estutu egiten da nabarmen.

Urola Erdiko biztanleriaren hazkundera naturala 2011ra arte positiboa izan den arren, eskualdean zein Gipuzkoan eta EAEn negatiboa da 2013az geroztik.

Biztanleria aktiboari dagokionez, 15.768 biztanle aktibo zenbatu dira Urola Erdian: 8.499 gizon eta 7.269 emakume. Emakume aktiboen zenbatekoa nabarmen hazi da 3 lurraldetan azken hamarkadan. Igoerarik nabarmenena Urola Erdian erregistratu da, emakume aktiboen kopurua % 19,2 hazi baita 2010 eta 2018 bitartean. Emakume aktiboen hazkundera esker, gizon eta emakume aktiboen arteko arrakala nabarmen jaitsi da.

NEURGAILU EKONOMIKOAK ETA EHUN EKONOMIKOAREN BILAKAERA

2008 eta 2018 artean eskualdearen neurgailu ekonomikoak nola bilakatu diren egungo egoeraren ikuspegia argitzen lagunduko digu.

Barne Produktu Gordinak, esaterako, gorabehera handiak izan ditu denbora tarte horretan, 2008 eta 2012 artean % 19,5 jaisteraino. Hortik aurrera susperraldia hasi eta 2008ko zifretara iritsi da berriro 2018an.

Balio Erantsi Gordinaren kasuan, berriz, sektore ekonomiko ezberdinen ekarpenak gorabehera handiak izan ditu; denak jaitsi dira eta ez industria ez eraikuntza ez dira iritsi 2008ko zifretara. Lehen sektorea eta Zerbitzuen kasuan, ordea, hazi egin da (% 33,7) ekarpena denbora tarte horretan.


Krisi aurreko garaietara itzultzea nekeza gertatzen ari da, eta horren adierazgarria ere bada **langabetu kopuruaren bilakaera**. Izan ere, 2022ko martxoaren amaieran, 1.230 langabetu zenbatu dira Urola Erdian, iazko aldi berean baino 171 gutxiago; eta horrek % 7,7an kokatzen du eskualdeko langabezia indizea. Gizonen indizea % 6koa da, eta emakumeena, berriz, % 9,6koa. Langabetu kopuru handiena zerbitzuetatik dator (% 57), industriatik berriz, % 17, aurrez langabe zeudenak % 15, lehenengo sektoretik, % 6 eta eraikuntzatik % 5. Azpeitiko langabezia indizea aldiz, % 7,3koa da.

Lehenengo hiruhilekoan 1.668 **kontratu** zenbatu dira, 2021eko aldi berean baino % 8,4 gehiago. Sektoreen arabera, zerbitzuetan gertatu da hazkunde handiena, % 16.55ekoa, 140 kontratu gehiagorekin; industrian, lehenengo sektorean eta eraikuntzan, aldiz, jaitsi egin da. Lehenengo hiruhileko honetako kontratuen % 76,6 aldi baterakoak izan dira.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren espediente aktiboek kopurua hazi egin da lehenengo hiruhilekoan, eta martxo amaieran 549 espediente zenbatu dira. Eskatzaileen generoari dagokionez, berdintsu bilakatu da emakumeen eta gizonen kopurua.

Afiliazio datuek 2008 eta 2014 artean joera negatiboa izan zuten arren, 2014 eta 2019 artean positiboak izan dira ia lurralde guztietan. Industria eta eraikuntza sektoretan izan zen jaitsiera handiena, guztira, eskualdean 1.828 afiliatu galtzeraino 2009 eta 2014 artean. Eskualdean hazi den sektorea zerbitzuen izan da, eta 2020aren amaieran, 5.969 afiliatu zenbatu dira sektore horretan, afiliatuen % 48. 2020 amaieran, industriak afiliatuen % 41 hartzen du, eskualdean, eta % 8,9 eraikuntzak. Industriako zenbait jarduerak afiliazio handia izan dute; hala nola, produktu kimikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoen ekoizpena, industria kimikoa eta elikagaien industria, eta bilakaera negatiboa, berriz, altzarien fabrikazioa eta metalurgia jarduerak. Zerbitzuen sektorean, berriz, jarduera guztiek izan dute hazkundera. Azpimarragarriak dira, osasun eta gizarte zerbitzuetan, jarduera profesional eta zientifiko eta teknikoetan eta etxeetako jardueretan izan den hazkundera. Gainera, 2019an 264 nekazaritza establezimendu zenbatu ziren, 339 industria sektorean, 289 eraikuntza sektorean eta, berriro ere, zerbitzuen sektorea gailentzen da 1.659 establezimendurekin.

Langabezia tasa



Azpeitia
Denontzat

**SUSTAPEN
EKONOMIKORAKO
LAGUNTZAK**

**550.000€ herriko
ehun ekonomikoa
sustatzeko**

www.azpeitia.eus

